


KORONABIRUSA: ERRONKAK DARRAI

KORONABIRUSA KONTAKTU ESTUAREN (2 METROTIK BEHERAKO TARTEAN) BITARTEZ KUTSATZEN DA, HITZ EGITEAN, EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN AHORA, SUDURRERA EDO BEGIETARA JOAN DAITEZKEEN TANTEK BIRUSA DARAMATENEAN. BAITA ESKUA EMATEAN EDO TANTA HORIEKIN KUTSATUTAKO OBJEKTUAK EDO GAINAZALAK UKITZEAN ERE.

PREBENTZIO-NEURRI PERTSONALAK



- 1 Besteekiko 2 metroko segurtasuneko distantzia mantendu.



- 2 Garbitu eskuak maiz, urarekin eta xaboiarekin edo desinfektatzaile alkoholikoarekin.



- 3 Eztul edo doministiku egitean estali ahoa besurrearekin edo behin erabiltzeko mukizapi batekin eta paperontzira bota.

! Ez ukitu ahoa, sudurra edota begiak

MASKARAREN ERABILPEN EGOKIA HERRITAR GUZTIENTZAT

Maskara neurri osagarria da eta guztion arteko transmisioa geldiarazten laguntzen du.



- 1 Garraio publikoan eta bestelakoetan nahitaez erabili behar da.




- 2 Toki itxietan erabiltzea gomendatzen da, edota 2 metroko segurtasun-tartea mantendu ezin denean.

! KONTUZ! Erabilera okerrak arrisku handiagoa eragin dezake.



TOKI ITXIETARAKO ETA SALTOKIETARAKO NEURRIAK



- 1 Langileak zein bezeroak babesteko neurriak bermatu behar dira. Jarduerak kontaktu estua beharrez gero, maskara edota eskularruak nahitaez erabili beharko dira.

- 2 Instalazioen eta materialen garbiketa eta desinfekzio egokia bermatzea.

Etxean geratzean egin duzun ahaleginak emaitza izan du. BAINA DESESKALATZE PROZESUAN ERRONKAK DARRAI.

ELKARTASUNEZ ETA SENAZ JOKATU

ASKO DUGU JOKOAN